

Arrazoinbideak

Deia, [1986-03-21].

Arrazoin izatea gauza ona da; gehienetan, egiaren jabe senti arazten gaitu; bestalde, norbaitek esaten badigu geu defendatzen ari garena irrazionala dela, gure arrazoinbideak bertan behera jausi eta tranpati xume batzu bezala geratzen gara.

Deskalkifikazio bide hau, ez da gehienetan arrazoinbidea.

Baina bere efeko politikoa lor dezake.

Arma trakets hau erabiltzen oso trebeak direnak, PSOE-ko sozialista euskaldunak dira. Berauek euskararik ez dakite, ez dute ikasteko gogorik erakutsi, baina ondo deritzaie Euskal Herrian euskarak ofizialtasun bat izatea; bere *Konstituzioak* halaxe bait dio, eta ONUk dionez, herri bakoitza erabiltzeko Printzipioen defendatzaile baitira. Printzipio demokratiko unibersala. Konstituzioa, dira sozialista hauen jainko txikiak. Baina, gero, eguneroko praktikan, euskarak bere burua defendatzeko erabili behar dituen minimoak aplikatzerakoan: euskaldunak euskaraz egiteko eskubidea lor dezan herri honetako postu publikoei euskara jakitera behartzea, hau irrazionala eta diskriminazioa da.

Pentsabide honek defentsarako, zen diote, errazionalizazio bidez aztertu behar direla herri honetan ditugun arazoak: *euskara* sortzen ari den diskriminazioa, *indarkeria* bera.

Herri honetako PSOE-tar hauek eskatzen dutena zera da: Euskalerrian bizi ditugun prolemak zentzu hutsez, bihotzaren interferentziarik gabe, tratatzea. Beraiek egiten duten bezala! Hara hor exenploa!... Honetarako, ordea, hauen asepsia, hauen distantzia, hartu behar genuke, eta honetarako euskaldunok euskaldun izateari utzi egin behar genioke.

Hemen dago gakoa: bakoitzak berea ez duena ikusten du hotz-hotzean, arrazoin hutsez. Sozialista hauek euskal arazoa hain garbi eta hotzean ikusteko gai direnez gero, seinale ez dutela bere bezala ikusten.

Baina ezin dute hala ere ulertu: zergatik ez dugun haien espainoltasuna sentitzen, zergatik ez dugun haien bandera onartzen.

Zinikoak ezagutzen ditugu politikan, baina PSOEko sozialista monarkiko hauek, euskaldun espainol hauek, langileriaren defentsan langileak saltzen ari diren hauek, dira errazionalizatze honen bitartez printzipioak zanpatzen ari direnak, gaurkotasuna eta zientifismoa eta razionalismoa bide dutela.

Jakinez batez ere zientifikoa bada, oso ausarta.